

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIORECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO Y VIVIENDA

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Esparza kontseilaria Nekazariaren EBeko Ministro Kontseiluan parte hartzen ari da

Esparza kontseilaria Nekazariaren EBeko Ministro Kontseiluan parte hartzen ari da

Lunes, 16 de julio de 2012

Landa Garapen,
Ingurumen eta Toki
Administrazio kontseilari
José Javier Esparza-k
Bruselan parte hartu du gaur
Nekazaritza, Elikadura eta
Ingurumeneko ministro Miguel
Arias Cañeterekin batera
Europar Batasuneko
Nekazaritza eta Arrantza
Ministroen Kontseiluan.
Bilkuraren buru Zipreko
Nekazaritza, Natura Baliabide
eta Ingurumen ministro Sofoclis
Aletraris eta EBeko Nekazaritza



Arias Cañete ministroa eta Esparza sailburua
Dacian Ciolos Nekazaritza komisarioarekin
solasean, Europar Batasuneko Nekazaritza
eta Arrantzako Ministro Kontseiluaren batzarra
hasi aurretik

Komisario Dacian Ciolos izan dira; Ziprek du seihileko honetan Europar
Batasuneko lehendakaritza. Foru Komunitateak, berriz,aldi horretan
bertan Espainiako Autonomia Erkidegoen ordezkaria da Nekazaritza eta
Arrantza Ministro Kontseilu horretan.

Aztertu diren gaien artean, Zipreko lehendakaritza berriak datozen
sei hilabeteotarako lan-programaren berri eman du, eta mahai gainean
dagoen gai garrantzitsuetako bat Nekazaritza Politika Bateratuaren
erreforma da. Espainiaren aldetik, alor horretako eskaera nagusien artean
honako hau ageri da: Espainiako nekazaritzaren dibertsitate klimatiko eta
produktiboan hartzen diren neurriak hartu ahal izateko malgutasuna;
planteamendu horrek Nafarroaren babesa du. Era berean, gure
herrialdeak administrazio-kudeaketan sinplifikazio handiagoaren alde
egiten du, laguntza-hartzaileentzat burokrazia-zama arintze aldera, eta
horren aldekoa da, halaber, Foru Komunitatea.

Europako ministroek ere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren
Araudiaren Proposamenaren inguruan ere eztabaidatu dute; hura Landa
Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bidezko
garapen-laguntzari buruzkoa da eta, zehazki, bertan jasotzen diren
arriskuak kudeatzeko neurriei buruzkoa. Horri dagokionez, ordezkaritza
espainiarrak Espainian jada jarritako nekazaritza-aseguruen sistemaren
jarraipenaren alde egin du; izan ere, egungo proposamenak planteatzen
duenak baino estaldura-maila handiagoa du.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudiaren proposamena, nekazaritza-produktuen Merkatuen Antolaketa Bateratua sortzen duena, merkatuen nahaste-egoeretakako aparteko neurriak jasotzen dituena, Nekazaritza eta Arrantzako Europar Batasunen Ministro Kontseiluan aztertutako beste gaietako bat izan da. Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioko proposamenak honako honen aldeko apustua egiten du: neurri horiek muga ez daitezen nekazaritza eta abeltzaintzako produktu zehatz batzuetara, baizik eta era guztietako produktuak estal ditzan.

Testuinguru horretan, esnekien merkatuari buruz eztabaidatu da. Zehazki, pasatzen ari den egoera zaila aipatu da, 2009ko krisiaren antzekoa, prezioen jaitsierak bereizarazten duena eta horrek erregai nahiz pentsuen igoerarekin kontrastatzen du, eta sektorearen defentsan berehala premiazko neurriak hartzea eskatzen du. Espainiako ordezkariak bere kezka agertu du, alde batetik, esne-sektoreak bizi duen desoreka handiko egoeratik, eta bestetik, azken hilabeteotan prezioek izandako jaitsiera-joeratik. Alde horretatik, Poloniaren eskaera babestu du erreferentziazko prezioak berrazter daitezen, bai eta esportazioen itzulketak aldi baterako berriz sartzea ere.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza-rentzat Foru Komunitateak hurrengo hilabeteetan Nekazaritzaren Europar Batasuneko Ministro Kontseiluen parte-hartzeak aukera handia eskaintzen dio, batetik, Europa mailan bertatik bertara Nafarroarentzat garrantzi berezia duen sektore bati buruzko planteamenduak eta eztabaidak entzuteko; bestetik, Espainiako eta Nafarroako nekazari eta abeltzainen eskari eta proposamenak entzunarazteko.